

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Cuatro Vientos Institutuak hezkuntza-premiak dituzten ikasleak barne hartzearen Sari Nazionala jaso du

"Simulando" proiektuak metodologia berria eskaintzen du bulegoko laguntzaile izateko Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziaren curriculuma garatzeko orduan

Jueves, 26 de junio de 2014

Iruñeko Cuatro Vientos institutuak "Simulando" proiektuaren bidez hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak barne hartzeagatiko Sari Nazionala jasoko du bihar Madrilgo Ikerketa Zientifikoen Goi Mailako Kontseiluko ekitaldi-aretoan. Proiektuak metodologia berri bat eskaintzen du bulegoko laguntzaile izateko Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziaren curriculuma garatzeko orduan.



Cuatro Vientos institutuko ikasleak

Deialdian hainbat autonomia-erkidegotako ikastetxe eta irakasleek parte hartu dute, eta saritutako proiektuek 10.000 euro jasoko dituzte.

Saria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako, Helduen Hezkuntzako, Arte Ikasketetako, Kirol Ikasketetako eta Hizkuntza Eskola Ofizialak diren zentroetako proiektuen modalitatean ematen da.

Kategoria horretan, sarien helburua unibertsitatekoak ez diren ikasketak eskaintzen dituzten eta jarraian aipatzen diren arloetako hezkuntzaren kalitatea hobetzen laguntzen duten hezkuntza proiektuak garatzen dituzten estatuko ikastetxeak aintzatestea da: bakearen kultura, indarkeriarik eza, elkarbizitza eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna; informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta aplikazioa helburu didaktikoekin; hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak barne hartzea; irakurriaren, idatziaren eta ikus-entzunezko gaitasunak ikasteen dinamizazio-jarduerak berriak garatzea; gizarteko, ingurumeneko eta ekonomiako iraunkortasuna sustatzeko jarduerak bultzatzea, baita osoko osasuna ere, eta hezkuntzako arrakasta hobetzea.

Proiektua

"Simulando" proiektuaren xedea, proiektuko metodologiaren eta

zerbitzu-ikaskuntzaren bidez, laneko egoerak simulatzea da, benetako egoeretako baldintza berdinetan, zereginak eta antolaketa ikaslearen eta ikastetxearen gaitasun eta baliabideetara egokituta. Institutuak adierazitakoaren arabera, lanbide-moduluak izan behar dira programaren ardatz nagusia, beraz, lanbideei loturiko edukiak zein oinarrizkoak bateratzea eta "Bulegoko laguntzailea" izateko lanbide-kualifikazioak eskatzen dituen gaitasunak garatzea ahalbidetzen duten proiektuetan oinarritutako egitura bat sortu dute.

Cuatro Vientos institutua 1985ean eratu zen, Iruñeko San Jorge auzoan dago, eta interes historikoko eraikin gisa dago katalogatuta. Sortu zenetik, enpresen alorrerako profesionalak trebatzen aritu da, Administrazioa eta kudeakete, Merkataritza eta marketina, eta Informatika eta komunikazioak lanbide-eremuetan. 509 ikasle ditu erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloetakoak, goi-mailara sartzeko proba prestatzeko ikasturtea egiten ari direnak edo hasierako lanbide-kualifikazioko programetan parte hartzen dutenak.